

## AURKEZPENA

Egungo testuinguruan, zeinetan hitzarmen kolektibo askoren indarrean egotea amaitzeaz dagoen, eta horren ondorioz hori gertatzen denean zer gertatuko den inguruko ziurgabetasuna sortzen den, *Lan Harremanak* aldizkariaren Erredakzio Kontseiluak gai horrek soldaten eta lehiakortasunaren ikuspuntutik aztertzeak duen garrantzia nabaritu du. Honetan ere, gaiari ikuspegi anitzetik ekiteko saiakera egin da. Hori dela eta, ale honetan parte hartu duten egileak jakintza-arlo ezberdinetakoak dira.

Javier Bilbaok eta Carlos Ochandok «Soldatak eta lan kostu bateratuak espainiar ekonomian: errentaren banaketa funtzionala hazkunde ekonomikoaren etapan» artikuluan, 1995-2007 aldian espainiar ekonomiaren garapena aztertu ondoren, hedatze aroa izan eta asalariazio-tasak gora egin arren, soldatei lotutako errentek ez zutela gehitze paraleloa jasan ondorioztatzen dute.

Amparo Merinok, negozioazio kolektiboa lan harremanetan oinarritzeko atala dela abiapuntutzat hartuta, «Negozioazio egituraren aldaketak: negozioazio kolektiboaren deszentralizazioa edo desaktibazioa» artikuluan eremu horretako azken erreformak aztertzen ditu. Bere hausnarketan artean erreforma horiek aurreko ereduak porrot egin duela bere gain hartzen dutela nabarmentzen du. Hori dela eta, lege erregimenaren eta erregimen konbentzionalaren arteko tradiziozko dialektikara bira egin omen da.

Gai bera jorratzen du Tomás Arrietak ere «Negozioazio kolektiboari buruzko arauzko eredu berria. Bere zenbait eragin Euskal Autonomia Erkidegoan» artikuluan. Egileak 3/2012 Legearen zenbait xedapenek lan harreman kolektiboaren ereduaren aldaketa oso sakonak sor ditzaketela azpimarratzen du. Era berean, aldaketok Euskal Autonomia Erkidegoko negozioazio kolektiboan izan ditzakeen eragina ere aztertzen du.

Bere aldetik, Joxe Elorrietak sindikatu mugimenduaren egoerari egiten dio so «Sindikalgintza Oldarkorra» bere artikuluan. Bertan, ELA sindikatuaren ibilbidea dago aztergai nagusiki. Bere ondorioz aipagarriena langileriaren eskubi-

deak eta eskaerak defendatzeko tresna gisa, borroka sindikalak lehenagoko jokamolde instituzionala alboratu eta ordezkatu duela da.

Aldizkariaren zati monografikoa negoziazio kolektiboaren erreformaz mundu sindikalak duen ikuspuntuarekin ixten da. Zehazki, ELA sindikatuko Negoziazio Kolektiboko arduraduna den Ioseba Villarrealen ekarpena sartzen da. Negoziazio kolektiboaren eremuan sartutako aldaketan analisia egin eta gero, egilearentzat erreformak bilatzen duena zera da: lan kostuak gutxitu eta taldeko eskubideei eta defentsari eraso egin.

Alearen atal irekiak hiru artikulua jasotzen ditu, guztiak ere interes handikoak gaurkotasuna duten gaiak jorratzen dituzte eta. Lehenik eta behin, Alberto Riesco-Sanzek «Soldatapekorik gageko enpresak eta enpresarik gabeko soldatapekoak: enpleguaren krisiaren eta eraldatzearen inguruko apunteak» artikuluan enpleguaren instituzionalizazio prozesuaren eta jasan duen eraldaketaren inguruko hausnarketa egiten du.

Eguzki Urteagak, bere aldetik, Frantziako enplegu politiketara buruz idazten du, arreta erakarriz langabeziaren gehikuntzari eta, oro har, egungo krisi ekonomiko eta sozialari aurre egiteko duten erronka.

Azken artikuluan, Osasun Publikoaren Defentsarako Elkartearen Federazioko eta International Association of Health Policy-ko bozeramailea den Marciano Sánchez Baylek sakon aztertzen du Estatuko Osasun Sistemaren sostengarritasuna eta berak eskaintzen dituen prestazioen kalitatea eta seguritatea bermatzeko premia neurriak jasotzen dituen apirilaren 20ko, 16/2012 Errege Dekretu-legea. Hori irakurrita, erreformak osasun sistema unibertsalean duen eragin kaltegarria ondorioztatzen da, segurtatze sistemaren alde egiten baita. Horrez gain, sartutako zenbait neurrik argi eta garbi egiten die kalte baliabide ekonomiko gutxien duten pertsonen.